

IRAKASKUNTZA-GIDA

2014/15

Ikastegia

135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

Ikastaroa

3. maila

IRAKASGAIA

25781 - Kirol Erakundeen Kudeaketa Tresnak

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Helburua:

Kudeaketa eta Aisialdiko Minorraren zatia bada ere, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren graduatuek gainerako eskuhartze eremuetan aurrera eraman behar ohi dituzten oinarrizko kudeaketa funtzioetan erabiliko dituzten tresnen erabilerarako gaitzea du helburu.

Irakasgaiaren bitartez, ikasleengan kirol kudeaketarako erabilitako tresnen ezagutza praktikoa bilatzen da, bai baliabide material, giza eta finantza baliabideen kudeaketari dagokionean.

Egitasmoen kudeaketarekin duen loturarengatik, bere izaera praktikoagatik eta erabiliko den metodologiarengatik, irakasgaiak era berean, ikaskuntza autonomorako eta Gradu Amaierako Lana elaboratzeko prestatzen du.

Titulazioko gaitasun espezifikoak:

G015- Kirol erakundeak, entitateak eta instalazioak kudeatzea.

Titulazioko zeharkako gaitasunak:

G018- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) JFKZren esparruan aplikatzen jakitea.

G020- Egoera berrietara egokitzeko, arazoak konpontzeko eta modu autonomoan ikasteko gaitasunak garatzea.

Ikasgaiaren gaitasunak:

GE1- Eremu honetan irakaskuntza-autonomia lortzeko kirol erakundeetako baliabide material eta giza eta finantza baliabideen oinarrizko kontzeptu eta kudeaketa tresnak ezagutu eta ulertu.

GE2- Kirol erakunde eta instalazioen kudeaketa tresnen erabilerari buruzko kasuak analizatu, bere egokitasuna balioesteko eta aukera eta irtenbideak proposatzeko.

GE3- Baliabide material eta giza eta finantza baliabideak kudeatzeko tresnen erabilera negozio egitasmo baten diseinuan aplikatzeko.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. Kirol kudeaketa prozesuan kudeaketa tresnen erabilera eta aplikazioa.
2. Analisi estrategikorako tresnak.
3. Plangintza estrategikorako tresnak.
4. Arriskuen kudeaketarako tresnak.
5. Instalazioen kudeaketarako tresnak.
6. Giza-baliabideen kudeaketarako tresnak.
7. Negozio-zorroa analizatzeko tresnak.
8. Egitasmoen kudeaketarako tresnak.
9. Finantza-plangintzarako tresnak.
10. Kudeaketa tresnak negozio plan baten elaborazioan.

METODOLOGIA

Irakasgaiaren metodologia aplikatua da. Erabiliko den metodologiá proiektuen bitarteko ikaskuntza da (IKD-Proiektuen bitarteko ikaskuntza). Kudeaketa tresnen erabilerari buruzko proposamen praktikoak elaboratzeko asmoz, ikasleak gelako azalpenetan eta literatura eta kasuen ezagutzan oinarrituz kudeaketa prozesuaren elementuak aztertuko ditu.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	67,5		22,5						

Legenda: M: Maistrala S: Minteia GA: Gelako d. GL: Laboratediko d. GO: Ordenaailuko d.
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa d.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia %
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) %
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) %
- Lanen, irakurketen... aurkezpena %

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluaketa jarraia:

Praktiak: Ebaluaketa jarraia egin ahal izateko klasean proposatutako praktiken %80a aurkeztu beharko. Praktiak proposatutako diren epeetan eman behar dira, eta aurkezpen bidez, txosten bidez etab ebaluatu ahal izango dira. Ebaluaketa azarearen bidez hautatuko praktika jakin batzuen gainean ere burutu liteke. Notaren %30.

Negozio egitasmoa: Taldean negozio egitasmo bat sortu beharko da eta ondoren honen aurkezpen bat egin balizko erosle edo inbertsoreen aurrean. Notaren %70.

Ebaluaketa ez-jarraia:

Proba final bat burutuko da eta bertan analisi eta tresna guztien ikuspegi teoriko zein praktikoa eta negozio planaren edozein atalen garapena eskatu ahal izango dira. Notaren %100.

Oharrak:

G018 eta G020 zeharkako gaitasunak landuko dira, baina ez dira espezifikoki ebaluatuko.

Ikasleak sei ebaluazio deialdi izango ditu (irakasgaia hurrengo ikasturteetan eskainiz gero).

Ikasleak uko egin ahal izango dio ebaluazio deialdiari, eta deialdi hori ez zaio kontuan hartuko. Horretarako nahikoa da azterketan ez aurkeztea.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Moodle-en argitaratuko dira.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- Campos, C. (2004). Dirección y marketing de servicios y centros deportivos. Bartzelona, Espainia: Gestión y promoción editorial.
- Chelladurai, P. (2001). Human Resources Management in Sport and Recreation. Champaign, IL: Human Kinetics.
- Chelladurai, P. (2005). Managing Organizations for Sport & Physical Activity (2nd Ed.) Scottsdale, AZ: Holcomb Hathaway.
- Cutropia, C. (2005). Plan de Marketing (paso a paso). Madril, Espainia: Esic.
- Emery, P. (2011) Sport management toolkit. London, United Kingdom: Routledge.
- Hall, E. T. (1973). La dimensión oculta. Enfoque antropológico del uso del espacio. Madril, Espainia: Instituto de Estudios de Administración Local.
- Heinemann, K. (1998). Introducción a la Economía del Deporte. Bellaterra, Espainia: Paidotribo.
- Ludevid, M., y Olle, M. (2000). Como crear su propia empresa. Bartzelona, Espainia: Marcombo.
- Mullin, B.J., Hardy, S., y Sutton, W.A. (2000). Sport Marketing. Champaign, IL: Human Kinetics.
- Parks, J. B., y Quarterman, J. (2003). Contemporary Sport Management. Champaign, IL: Human Kinetics.

Pitts, B. (2000). Principles of Sport Management. Champaigns, IL: Human Kinetics.

Reigs, E., Fernández, J., y Jauli, I. (2003). Los recursos humanos en las organizaciones orientadas a la eficacia y el aprendizaje. Madrid, España: Thomson.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Blanchard, K., Zigarmi, P., y Zigarmi, D. (1986). El líder. Ejecutivo al minuto. Bartzelona, Espainia: Urano.

Blanchard, K. (2003). ¡Bien hecho! Bartzelona, Espainia: Granica

Blanchard, K., y Bowles, S. (2001). ¡Choca esos cinco! Bartzelona, Espainia: Grijalbo

Hunter, J. (1999). La paradoja. Bartzelona, Espainia: Urano

Hunter, J. (2000). Fish!. Bartzelona, Espainia: Empresa activa

Jonson, S. (2002). ¿Quién se ha llevado mi queso? Bartzelona, Espainia: Empresa activa

Trias de Bes, F., y Rovira, A. (2004). La buena suerte. Bartzelona, Espainia: Urano.

Aldizkariak

Apunts

Revista de Educación Física

Perpectivas de la educación física.

Interneteko helbide interesgarriak

Lecturas de Educación Física y deportes. Revista digital. www.efdeportes.com

OHARRAK